

# BIZKAIAN, BIZKAIKO

## ARRITUTA

Joan dan egin baten argitaratu barri dan orri bati begira nengoan, Bilboko Aurrezki-Kutxak erderaz zabaltzen dauan Bizkai-ko «Enciclopedia Historico-Geográfica», 33garren atala irakurten. Lagun batek albotik badiñost: «Zer irakurten ago? Eta nok idatzia dok ori?». Eta nik, eskuetan neukana Urkiolako abadeak, Estonbak, idatzia zala erantzutean, arrituta itxi nindun, entzun neutsanean: «A, bai, Urkiolako abadea, lengo baten il dana». Nire arrimena somatu ebanean, galaratu eban: «Orain amabost bat egun il zoan, Euskalerritik kanpo intzala, antza».

## BIZKAITARRAKAZ

Oraindiño ezin siñisturik, banoa amabos bat egun lenagoko egunerokoetara, eta bai, alan zan. Egia zan, egi mingarria euskal-literaturaren maitaleentzat, mingarria euskalzaleentzat. Eta batez be, eriotza orregaz Bizkaiko euskereak maitale zintzo bat galdu dau, eutsan maitasura egitez erakusten ebana. Zelan? Bizkaieraz egin eta idatziz.

Bai, bizkaitarrakaz bizkaitar agertzen jakin dau Estonba giputzak, Bizkaiko euskaldunekaz Bizkaiko euskaldun. Gagozen egunotan ez da gauza utsa, ez da gitxi eskertzekoa. Zorioneko euskera batua dala-ta ez tala, euskerearen eriotza ekarteko arriskuan ez ete gara sartu?

## IRAUPIDEA

Atzerri bateko izkuntzalari batek esanak zentzun osozkoa dirudi. Onela diño: «Len berea eban euskereari eusten jakin ez dauan euskaldinak, zelan jakin lei berea eztauan euskera bati eusten? Barri eta arrotz egiten jakon euskera ball irauin eragiten?». Eta ez, bere izkuntzari maitasunik ez deustalako, inguruko erderai atzera eragin eziñez baiño.

Niri neuri, gure inguruan dabilan jokabidea ikusita, arako erri-zapaltzaille andiarena etorten jat gogora. Gizon guztiak sama bat bakarra eukitea gura ei eban, sama ori ebagita, guztiak era batera ilteko.

Euskera batuzale guztiak ez dot esango euskerearen eriotzea nai dabenik. Baiña askoren alegin setatsuak ez ete doaz orretara? Euskera bizia, lekuan lekuko euskera bizia ukatuaz, edo beintzat bizitea nekezko eta gatx ipiñiaz, eta arein orde euskera erkin, bizibako eta il, eta erdizperdi ikasiraiko bat ezarri bearraren bearraz, euskerea itotera, euskerean bizia galtzera doaz.

## LEKUA ARTZEN

Euskera bizi bat galdu eta aren orde beste euskera bat, ohea, jarrea balitz, gatx erdi izango litzake.

Baiña euskera bizi bat galtzen dan lekuan, aren utsunea ez dau beste euskera batek betetan, erderreak, alde batekoak edo beste-koak, baiño.

Zuberoko euskerea galtzen dan lekuan, ez da an lapurdiera ez euskera batua sartzan. Frantzesak baiño.

## ZORI TXARREKOAK

Onetan Bizkaiko euskerea da, guztien eretxiz, zorigaiztokoena.

Gaur irakurri dot euskal-idazle ugarienetako batek esan dauana. Euskera batuan idatzi, nai bizkaieraz idatzi, euskera jator eta garbian idaztea ei da kontua.

Baiña or zear dabiltzan batzuentzat euskera batutik kanpo euskera jator garbirik ez ei dago.

Olango zentzunbakokeriak esan eta esateraiño eldu gara.

Aitatu dodan idazleak esana da beste au be: «Zuberotar batentzat alperrik idatziko dogu bizkaiera utsean; ez leuke ulertuko». Batu-

zaleen aldizkarietan Zuberoko euskeraz idatzitako olerki eta idazlanak noiz nai izaten dabe abegi ona, eta zabalik atea. Baiña bizkaierazkoak? Iñondik iñora be ez. Pekatu larriegia litzake ori.

Bizkaiko euskerea ez da ola-koentzat euskera. A untzerdera edo aren senideen bat da, izatekotan. Geien geien be, bizkaiera lekuan lekukokeri batzuk aztertze-ko asmotan aintzat artuko dabe: nungu, einbizuz, eta olako uskeriren batzuk non ta noraiño esaten diran aztertze-ko.

## ESTONBA'REN ERITXIA

Orain galdu dogun idazlea, Estonba jauna, ez gendun jokabide eta eretxi orretakoa. Bizkaiereari bere nortasuna aitortu izan deutso, eta bizkaiera jator eta landu baten idazten alegindu da.

Nik ez dakit noz eta non ikasita. Bizkaiko euskerea entzun eta ezagutzeko erea Bizkaiko abadegeien irakasle izan zanekeo urteak emon eutsen, antza. Batez be, Bilboko Eleiz-barrutiko ikastxeetan. Eta udako opor-egunetan.

Nik badakit neure errian be, Baltzola aldean, emon zituela udako egun asko, ango abadegei baten etxean. An eukan aukerea Arratiako euskerara belarria egi-ten.

Gero Ameriketatik, mixio-errietatik osteratxoa eginda, Urkiolan ebenean abade, or euki dau eskola barri luzeagoa.

## ESKER ONA

Eta Urkiolatik ainbat lan bialdu ditu Bizkaiko euskal-orrietara. ZER onen irakurleak badakie ori..

Ez dot nik emendik guztien esker ona biztu bearrik.

Benetako apostolu eta mixiolari lez, guztientzat guztia izan nai eban oni, Bizkaian Bizkaikoa, eta bizkaerazko idazlea izaten alegindu zan oni, biotz-biotzez: Eskerrik asko.

L. AKESOLO